

Basaburuak GAZTAIN FERIAren lehen edizioa ospatuko du datorren igandean, azaroak 3, Mendialdeko Azoka Ibiltariarekin bat eginez

Gaztainen kultura eta tradizioa eta bertako gaztainadien balio naturala ezagutzeko topaketa izanen da. Hori guztia, azaroaren 2tik 3ra Jauntsaratsen antolatutako jarduera anitzen jardunaldien barne.

Gaztainadiak eraikitzen dute gure paisaia, eta, gaur egun, gehienak abandonatuta egon arren, gure arbasoek landatu, txertatu, inausi, bakandu eta zaindu dituzte, bere aurrekoek transmititutako jakinduriari esker, tamalez, egun galtzear dagoen ezagutza.

Basaburua, Ultzama eta Larraungo bailarek gaztainondo ugari dituzte oraindik. Aparteko ingurumen-balioa dute; izan ere, paisaia osatzeaz eta aberasteaz gain, biodibertsitatean oso habitat aberatsak dira, eta oinarrizko funtzioa betetzen dute lurzoruaren kontserbazioan, erregulazio klimatikoan, uraren zikloan eta abarretan.

Baina, gainera, gaztainondoa ohitura, elikagai, berotasuna eta babestokia da gure kulturaren. Gaztainondoa erabilera ugariarekin lotuta egon da beti: gizakien eta abereen elikadura, eraikinetako edo altzarietako egurrerako, saskigintza, landare melifero gisa, etab. Gaztainak biltzea eta ondoren dastatzea, gainera, gaztainen berotasunean elkartzeko eta sozializatzeko motibo izan dira. "*Urriaren azkenean gaztaina etxean*"...hala dio atsotitzak.

Hau guztia Basaburuko herritarrek, Basaburuko Udalaren eta Plazaola Partzuergo Turistikoaren laguntzarekin, sustatutako inizatibak biltzen du. Helburua da barietateak, jakinduria eta gaztainadiak berreskuratzea eta, are gehiago, gure tradizioan hainbeste pisu izan duten erraldoi hauen inguruko kultura eta ekonomia berriro sortzea.

Proposamena bikoitza da. Alderik dibulgatzaileena larunbatean, hilak 2, izanen da, gaien adituak diren pertsonen eskutik. Eta jai giroa eta dinamizazioa igandean, hilak 3, izanen da, hainbat erakusketa, dastatze, artisau-postu, erakustaldi eta abarrekin.

Jardunaldi dibugaltzailea larunbatean, hilak 2

Feria honen helburu nagusietako bat gaztainondoak kontserbatzen eta balioan jartzen lagunduko duten esperientziak ezagutzea eta ikastea da. Horretarako, azokaren bezperan, hitzaldi batzuk antolatu dira gaian adituak diren pertsonen eskutik. Hau da, beste leku batzuetako esperientziak izanen ditugu, euren protagonistek kontatuak. Horrela, 16:30etatik aurrera, "Apeztegiberri"-ko ganbaran (Jauntsarats herrian), ondorengo hitzaldiak izango dira:

- **"Gaztainondoaren kulturaren garrantzia Euskal Herrian"**. Aintzane Kortajarena eta Akaitz Sarasolarekin (Barandiaran Beka 2023)
- **"Gaztainondoa balioan jarri. Esperientzia batzuk "**. Mikel Diaz Osés, Nafarroako Gobernuako Ingurumen teknikariarekin
- **"Gaztainak balioan jartzeko hainbat esperientzia Iparralden"**, Gillies Texierrekin (Urepele-Nafarroa Beherea
- **"La Oricera", Leongo El Bierzoko gaztainez egindako produktuen komertzializazioa"**. Isidro Álvarez Díezekin

Hitzaldien ondoren gaztainez egindako produktuen **dastaketa** izanen da

Jardunaldia euskara eta gaztelania tartekatuz egingen da, eta bertaratutako guztien ezagutza eta ekarpenak partekatzeko aukera egonen da.

Erakusketak, tailerrak eta dastaketak igandean, hilak 3

Igandean Basaburuko I. Gaztain Azoka ospatuko da. Jarduera desberdinak izanen dira, beti ere gaztaina protagonista nagusia izanen delarik. Jarduera hauek **Jauntsarasko hariztian 10:30etik 14:30era** izanen dira.

Erakusketak:

- **Gaztainaren kultura Euskal Herrian** (Aranzadi Zientzia Elkarteko "Etnografia" sailaren eskutik)
- **Bertako gaztainen erakusketa**
- **Saskigintza**. Erakusketa eta salmenta Lourdes Larralderen eskutik (Azpeitia)

Tailerrak eta erakustaldiak:

- **Saskigintza tailerra**, Lourdes Etxaniz eta Paulo "Matxi" -rekin (Azpeitia)
- **Gaztainondo zahar baten taila-erakustaldia motozerrarekin**, Mikel Lasarterekin

Dastaketak:

- **Bertako gaztainen dastaketa:** "Bertako gaztainarik goxoena" herri-bozketa eta **gaztaina-produktuen lotearen zozketa** parte-hartzaileen artean
- **Gaztaine egindako errezetak probatzeko aukera.** "REYNO GOURMET" - en eskutik
- **Gaztain jate herrikoia**, "Txorimilo" gaztain-erretzailearen eskutik

Artisauen postuak (azoka ibiltaria) eta gaztainari lotutako postuak

Basaburuko udalak, ekitaldi hau aprobeztatuz, Mendialdeko Azoka Ibiltariaren azken merkatuetako bat antolatu du. Merkatu honetan ohikoak diren postuei gaztaineren kulturarekin lotura duten beste batzuk gehituko zaizkie:

- **Gaztain landareen salmenta**
- **Gaztainondo-zurez egindako saskien salmenta**
- **Gaztainez egindako produktuen salmenta**

Guztira, gaztainerekin lotutako 4 postu, Mendialdeko Azoka Ibiltariko 22 postuei gehituko zaizkienak. Nekazaritzako elikagaien 12 postu izanen dira: gazta, taloa, hes-tebeteak, pateak, zukuak, arrautzak, artisau-garagardoa, etab., eta eskualdeko artisauen 13 artisautza postu gehiago ere izanen dira: zura, zeramika, metala, ehungintza, etab. Modu jasangarri eta arduratsuan egindako tokiko produkturik onenen eskaintza izanen dugu Jaunsaratsen, zonaldeko lehengaien erabilera bereziki baloratzen duena. Azoka honen bidez, gainera, landa-eremuko ingurumenarekin, aisiarekin, ekonomiarekin eta kulturarekin arduraz jokatzeko duen kontsumoa sustatu nahi da.

Azokaren **jende-aurreko ordutegia 10:30etik 14:30era izanen da**, ekitaldi guziaz **Jauntsarasko hariztian** izanen direlarik.

Azoka honekin, Mendialdeko Azoka Ibiltariak 2024ko edizioari amaiera emango dio ia, azken hitzordua **abenduaren 1ean izanen baita da, Betelun.**

Gero eta jasangarriagoa, irisgarriagoa eta inklusiboagoa den ekitaldi baten alde

Beste ekintzetan bezala, "**ZABORRA O**" mezua zabaldu nahi dugu. Datorren igandean, hilak 8, jendeari eskatu nahi diogu zakarrontziak erabil ditzatela eta azokako eremuan hondakinik ez dezatela utzi. Gero eta ekitaldi jasangarriagoak bultzatzea da helburua. Halaber, irisgarritasunari eta inklusibitateari dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- **Mugikortasun Urriko Pertsonentzako Aparkalekua (MUP).** Azokako eremutik gertu
- **Komun egokituak:** Apeztegi berrin, Jauntsarasko hariztitik 500 metrora.
- **Programa eta komunizazio (prentsa oharra eta Sareak) irisgarriak**
- **"Zaborra O":** zaborrontziak jarriko dira (koloreen arabera bereziak), betiere espazio garbi eta osasungarria izateko helburuarekin ("Zaborra O"), eta hondakinen gaikako bilketa eta birziklapena sustatuko da.
- **Paper berziklatuan inprimatutako seinaleztapen-kartelak**
- **Atsedeen-guneak**

Esteka honetan, ekitaldian izango diren zerbitzuen, leku interesgarrien, programaren eta abarren zerrenda zehazten da mapa batean: <https://labur.eus/MkSvh>

Ekitaldia Plazaola Partzuergo Turistikoak eta Basaburuko udalak antolatzen duten, CEDERNA eta Habelarte elkartearen laguntzarekin.

Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen du.

Jaunsaratsen 2024 urriaren 25a



Basaburuko
Udala

